

KULTURA INAUTERIAK ARGAZKITAN • GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA JOSEBA SAGASTARI ELKARRIZKETA

Barren

EL GOIBARKO ASTEKARIA • 2004ko otsailaren 27a/XII. urtea/478. zkia



GAURTIK AURRERA, OSTIRALERO BARRENEKIN BATERA ZUEN BUZOIETAN

Asteon, telebista aldizkaria

"MERKATUAN DAGOEN HUTSUNEA BETE NAHI DUGU ASTEONEKIN"
(Jasone Osoro, Asteoneko zuzendaria)

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



Elurra teilatuan, zakua lepuan

Elurra mara-mara botatzen ikustea oso polita da, baina makina bat arazo sortarazten ditu errepideetan. Ondotxo dakit nik hori, egunero egiten baitut 60 bat kilometro etxetik lantokira eta lantokitik etxera joateko. Aste honetan ere, ia egunero izan dut arazoren bat, istripuak edo elurra tarteko, errepidez etxera iristeko. Horregatik, agintarien gomendioei kasu egin diet eta autopistaz ibili naiz batera eta bestera. Baina ez pentsa autopista hartu dudan egunetan inoiz baino lehenago iritsi naizenik etxera, ezta gutxiago ere. Aurreko ostiralean, Durangoko peajejan sartu nintzen autopistara, Areitio elurrez gainezka zegoelako. Ermuraino autopistaz joatea pentsatu nuen eta handik errepidez etxera, beti bezala. Pentsatu eta egin. Hamar minutuan egin nuen bidea. 'Ederki' -pentsatu nuen-, berehalakoan izango naiz etxean, epeletan'. Baina ez zen halakorik gertatu. Autopista irteeran sekulako auto-ilara zegoen, bidesaria ordaintzeko kabina bakarra zegoelako irekita. Imajina dezakezuen moduan, demaseko ataskoa sortu zen autopistan. Luze jo zuen berriz errepide nazionalera irten nintzen arte: 15 minutu, askotxo aukeran, Durangotik Ermuraino 8 minutuan iritsi nintzela kontuan hartuta. 'Eskerrak 0,90 bakarrik kobratu didaten' -pentsatu nuen momentu hartan. Orain, ordea, 0,90 asko begitantzen zait, 15 minutu zain egoteagatik ez baitu xemeikorik ordaintzea merezi.

asteko notiziaria



Hausnarketa bat

Gaurkoan ez natorkizue espresuki zerbaitetaz hitz egitera. Ez dut gai konkretu bat hautatu. Ez dut horretan bururik nekatu nahi izan. Aurreko hainbat zenbakitako zutabeak irakurri ostean hausnarketa txiki bat egin dut. Bertan parte hartzen dugunon idatziei buruzko hausnarketa, hain zuzen ere.

Libre gera lerro hauen baitan gure eritziak azaleratzeko. Beti ere bakoitzaren ardurapean. Askatasun horrek eramaten gaitu norberaren sentikortasunaren araberrako idatziak plazaratzera. Hala ere, iruditzen zait sarritan urrunegi gelditzen zaizkigun gaietara joaten garela, zuen interes guneetatik kanpo dauden gaietara, aspergarri dakizkizuen gaietara. Txaxkarriloz beteagoak behar lirateke izan idatziok, hurbilagokoak, etxekoagoak eguneroko gai haundietara jo behar izan gabe.

Guztiak du bere interes gunea, badakit, baina jakitun naiz neuze idatziak ere nere senitartekoek (guztiek espero dut, ea ba!) eta esker oneko beste dozena erdi bat irakurzailek baino ez dituztela begiratuko. Ez naiz batera harritzen, alegia, lagunartekoek ezer aurkeztu baino dibagatu egiten dudala esaten baitidate.

Beldur naiz aurrerantzean BARRENen azaltzen diren argazkiak soilik izango dituzuen arreta gune. Ez dut nire burua idazle ontzat, baina nire kideen artean badira idazki bikainak aurkezten dituzten idazle apartak. Ainhoa Lendinezen azken idatzia, esate baterako asko gustatu zitzaidan, darabilen euskeraz gain identifikatu xamar dudalako neura burua bertan kontatzen duenarekin, ni neu ere Filologian lizentziatua bainaiz. Detailtxo bat salbu: nik ez dut arkitekto bat bizikide aukeratu.

Dena dela, hurrengo iritzi artikulotik aurrera saiatuko naiz hemen esandakoak gauzatzen.


Gotzon Arrieta

Kexak	5
motZ MotZ.....	8
gehigarria	13
kiROLak	20

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandari-txandari idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten digu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

Urruzunoren

Gerra



Atzera begiratzean, zeinek daki zenbat borroka eta basakeri izan diren lur honen gainean. Zenbat triskantza eta zenbat ikusiezin. Zenbat itxitako zauri, baina zenbat altxamendurako humus.

Gerraren drama, galdutako hutsunea ez ezik, bizi iraupenaren bortizkeria, eta arauen justizi eza dira. Funtsean, handiak txikia egurtu izan du beti, eta aurrerapenak, progresoak, elkarbizitza malgutu badu, ez du oinarririk irauli.

Orain (baina lehen berdin), manipulazioak biltzen du guztia. Legeak dira armarik zorrotzenak, komunikabideak arrazoirik sendoenak. Zarata sustatzeagatik, hitza ez da entzun nahi; aniztasunak lekurik ez du, kolore bakarrek bada dena. Noiz izan dute hainbestek hain gutxi, eta zertarako dute hain gutxi hainbeste? Ikusiko ote dugu noizbait, noizbait ikasiko, borroka dela aurrerabidea.

Mikel Artola

ASTEKARIA BARREN

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli URIGUEN KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako



LA BODEGA ERRETEGIA

LA BODEGA erretegiak bere bezeroei jakinarazi nahi die hurrengo astelehenetik, martxoaren 1etik, aurrera bere atea egun guztian irekita edukiko dituela.

P. Muguruza, 22 · Tel: 943 74 25 00



► Bernardo Ezenarro kaleko bizilagun batzuk etorri zaizkigu, larunbatetako egoera jasanezina dela esanez: “Larunbat arratsaldeetako arazoa handia da, baina gure kalean, gauzez ere, ezin izaten dugu lorik egin. Zarata ateratzeaz gain, portalean txiza egiten dute, eta guk garbitu behar izaten dugu. Hormak pintadaz beteta lagatzen dituzte, eta albotik pasatzen den edonor iraintzen dute. Zer bait egin beharra dago lehenbailehen”.




► Joan zen igandean "El Ultimo Samurai" filmea Herriko Antzokira ikustera joan zen pertsona batek esan digunez "Pelikula osoan zehar, bertan zeuden umeen zarata jasan behar izan genuen eta ezin izan genuen pelikula gustura ikusi. Umeei behin eta berriro ixiltzeko eskatzen zien jendeak baina hauek berdin jarraitu zuten. Zineko jarlekuzainak berriz, behin besterik ez zien ixiltzeko eskatu eta bistan denez, ez zioten kasu handiegirik egin. 4 euro ordainduta pelikulaz gozatzeko eskubide osoa dugula uste dut. Jarlekuzainak gehiago saiatu beharko liratekeela iruditzen zait”.



► Herritar batek esan digunez, Madalako errotonda ez dago batere ondo: “Madalako errotonda txapuza bat da. Karrilak kotxez betetzen direnean, traba besterik ez dute egiten. Askotan ezin izaten da Urasandi auzora igo, karrila beteta egoten delako, eta herrira sartzeko gauza bera gertatzen da. Gauzez, inongo trafikorik ez dagoenean, semaforoa gorri tokatuz gero, geratu egin behar da, inor ez pasatzeko. Errotonda borobila egitea izango litzateke onena, horretarako nahikoa leku dagoela jakinda”.

► Mintxeta Atletismo Taldeko kide batek Mendaroko atleta gazteak txalotu nahi ditu, “pasa dan zapatuan Eskolarteko Jokuetako atletismo probak jokatu ziren Mintxetan. Bertan, Elgoibarko ikastetxeetako 150 haur etortzekoak ziren, baina 15 bakarrik azaldu ziren. Elurrari eta hotzari aurre eginez Mendaroko 25 atleta gazte azaldu ziren Mintxetan eta beraiei eskerrak atera genuen aurrera atletismo jardunaldia. Mintxeta Atletismo taldearen izenean eskerrak eman nahi dizkiet eta berdin jarrai dezatela”.

Barrak, Birrak eta Barreak



©KOKOE 2004

Asteon **telebista aldizkaria**

Ostiralero **BARRE**nekin batera banatuko dugun aldizkaria

Urte hasieran Barrenek hainbat promesa egin zizkion bere buruari. Gogoratzen al zarete? Ostiraletan kalera ateratzeko lagun berri bat bilatu behar zuela esan genuen. Barren-a jaso duzuen momentuan konturatuko zineten ez zegoela bakarrik. Gaurtik aurrera, ostiralero Asteon Telebista Aldizkariarekin aurkituko duzue Barren zuen buzoietan. Baina zer da Asteon? Izenak berak, nahiko argi adierazten du, zer den; asteon zehar telebistan gertatzen denari buruz informatuko duen aldizkaria da. Jasone Osoro elgoibartarra da Asteon-eko zuzendaria, eta berarekin hitz egin dugu, aldizkari berri honen gertuko informazioa eskuratzeko. Bestalde, proiektu hau kudeatuko duen kooperatibaren lehendakaria Alberto Agirreazaldegi herritarra dugu.

ZER DA ASTEON?

Euskara Elkarteek bultzatutako telebista aldizkaria da. 48 orri, goitik behera koloretan eta euskara hutsean idatzia egongo da. Hiru zutabe nagusitan banatua, telebistaren ingurukoak izango ditu hizpide. Lehenik eta behin elkarrizketak, erreportajea, albiste laburrak, zapping-a, publizitateari buruzkoak eta bestelako artikulo informatiboak izango dira irakurgai. Bigarrenik, generoka aztertuko da telebista. Telesailak, entretenimendua, zinea, kultura... Horiek guztiak kolaboratzaileek idatzitako iritzi arikuloez lagunduta. Eta, azkenik, programazioaren aurrerapena egingo da. Euskal Herrian nagusi diren 12 kateen parrila eta euskaraz aritzen diren tokian tokiko programazioa eskura izango dute irakurleek.

EZAUGARRIAK

Asteonek Euskal Herria izango du erreferentzia eta abiapuntu. Euskal herritarrek izango dute lehentasuna, euskaraz aritzen direnek eta bertakoak izanik hemendik kanpo lanean dauden profesionalek. Ardatza telebista da, eta ez ETB. Hortaz, oreka mantentzen saiatuko dira.

LANTALDEA

Proiektu berri honetan sinisten duten 10 lagunek osatzen dute Asteoneko lantaldea.

TIRADA

75.000 aleko tiradarekin euskara hutsezko aldizkaririk hedatuena izango da. 250.000tik gora pertsonen irakurzaletasuna bultzatzeko tresna erakargarria izango da. Bestalde, aipagarria da publizitatea euskaraz egiteko aukera

ezin hobea eskainiko diela merkatal etxe handiei.

KOLABORATZAILEAK

Asteon-ek informatiboa, entretenigarria, erabilgarria eta kritikoa izan nahi du. Kolaboratzaile sare heteroegoena osatu dute eta horien esku geratuko da kritika. Adin eta esparru diferenteetako izenak fitxatu dituzte. Besteak beste Pako Aristi idazlea, orain dela gutxi arte El club de la Comedia saio arrakastatsuan gidoigile lanetan ibili den Xabier Zabaleta, Aitzpea Goenaga aktore eta gidoilaria, Itziar Alduntzin irrati esataria, Jon Artano aurkezlea, Koldo Alduntzin kirol kazetaria...

BANAKETA EREMUA

Proiektuko bultzatzaile diren herri aldizkariarekin batera banatuko da doan etxeko buzoietan. Hasiera batean Sakana, Durangaldea, Urola-Kosta, Debagoiena, Debarrena, Oarso eta Buruntzaldeako 9 herri aldizkariarekin banatuko da eta urtea bukatu aurretik beste hainbeste zabaltzea espero dute. Hegoaldeko hiriburuetan merkatal zentro handietan ere banatuko dira astekariak. Azkenik eta hurrengo fase modura Iparraldeko hedapenari emango zaio lehentasuna.



Oharra

BARREN korreoz jasotzen duzuenok **ASTEON** ere jaso nahi baduzue deitu zerbaki honetara: 943 74 16 26 (Amaia)

"Euskaldunok telebista zaleak gara"

Zein helbururekin sortu da Asteon? Batetik merkatuan dagoen hutsunea bete nahi dugu. Badira euskara hutsez aritzen diren zenbait aldizkari tematiko: Entzun, Gaztetxulo, The Balde... Asteon telebistaren ingurukoa da. Eta euskararen normalizazioari begira aurrerapauso garrantzitsua izango da. Horrez gain, herri aldizkariak sustatzeko asmoz ere jaio da, daudenak finkatzeko eta berriak sortzeko.

Zein izango da zehazki zure lana? Ni erredakzio burua naiz, beraz, lan taldea koordinatzea, edukien proposamenak egitea, testuak eta diseinua erreparatzea eta oniritzia ematea eta antzekoak egitea tokatzen zait. Horrez gain, kazetari lanak ere egingo ditut hainbat ataletan. Orohar, edukiaren eta itxuraren erantzukizuna daukat. Epeak bete eta aldizkari txukun, informatibo eta erakargarria ateratzea.

Telebista zalea izan behar al da Asteon-en lan egiteko? Beharrezkoa ez da baina gustatzen bazaizu askoz errazago eta gusturago egingo duzu lan, noski.

Asteon-en hasi zarenetik kasu gehiago egiten al diozu telebistari? Bai, nahi eta nahi ez. Erredakzioan telebista piztuta izaten dugu egun osoan eta interneten uneoro gabiltza albisteak bilatzen eta informazioa kontrastatzen.

Ez dago modan telebista ikusten duzula esatea, ezta? Ba ez. Egia da jendeak orohar ez duela oso erraz aitortzen telebista gustatzen zaionik. Gero beste kontu bat da etxeko anonimotasunean bakoitzak zer egiten duen.

Telebistan ibilitakoa zara, errazagoa al da horrela telebistari buruz idaztea? Pentsan hasi nintzen eta oraindik egiten ditut telebistarako gauzak. Biak uztartzen dituen proiektua da Asteon eta egia da medioak ezagutzeak gauzak arintzen dituela. Besteak beste jendea ezagutzen duzulako eta errazago iritsi ahal duzulako beraiengana.

Zein programatan gustatuko litzaizuke lan egitea? Ba ez dakit. Orain arte eskaini didaten guztiari esan diot baietz eta ez naiz damutu. Aukera hori izatea aberatsa da, denetik probatu. Halere, asko gustatuko litzaidake elkarrizketen inguruko saio bat egitea telebistarako.

Kamara aurrean edo atzean? Posible bada biak uztartzea hobe. Bai Zerán gidoiak idatzi eta aurkezle lanak egin nituen eta oso oso esperientzia aberatsa izan zen. Prozesua bizi duzu hasieratik amaierara arte ia.

Zein motatako programak gustatzen zaizkizu gehien? Gaur egun gehien ikusten dudana telesailak dira. Ikaragarri gustatzen zaizkit.

Zelako harrera egingo diogu elgoibartarrok Asteon-i? Nik uste irakurleek orohar gustura hartuko dutela. Telebista ikusi edo ez, elkarrizketa, albiste labur eta erreportaje entretenigarriak eta interesgarriak izango dira edonorentzat.

Euskaldunak telebista zaleak al gara? Euskaldunak ez

gara hain desberdinak munduarekin konparatuta! Nik uste gustatzen zaigula telebista eta audientziei erreparatuta datuak garbiak dira. Bai, euskaldunak telebista zaleak gara.

Telebistako zein pertsonai elkarrizketatuko zenuke? Javier Sardá.

Ikusterik ere nahi ez duzunen bat izango da, ezta? Alfredo Urdaci.

Ilusioz heltzen al diozu erronka berriari? Bai noski. Erronkek beti erakarri izan naute eta ilusioz heldu diot proiektu berri honi ere.

Literatura eta kazetaritza lanak uztartzen jarraituko duzu?



BI BERBATAN:

Goenkale: ETBn historia egin duen telesaila.

Basetxea: Euskaldunoi ere gustatzen zaizkigu realityak.

Cronicas Marcianas: audientzia lortzeko

denak balio du.

Futbol partidak: Betekada!

Gaur Egun: Mundua anabasa hutsa da.

Sautrela: Letren errepublika.

Lo que faltaba: Txutxumtxuak.

Udalak 13.115.406,29 euroko aurrekontua izango du 2004rako

Aurrekontuaren %29a, hau da, 3.838.880,18 euro, inbertsioetarako erabiliko

EAJ eta EA alderdien aldeko botoekin (PSE-EE eta PP abstenitu egin ziren, eta IUko zinegotzia ez zen Plenora agertu) onartu zen azken Udal Plenoan 2004rako aurrekontua. Guztira, 13.115.406,29 euroko aurrekontua izango du aurten Elgoibarko Udalak, eta horietatik 3.838.880,18 euro inbertsioetarako erabiliko ditu, hau da, aurrekontu osoaren %29a. Inbertsio hauen barnean, Mintxetako futbol zelaiaren berritzea, aire libreko igerilekuetako aldagelak egitea eta herritarrei arreta eskaintzeko lokal berri bat aipatu ziren. Inbertsioen barnean, lokal hau izango da nobedade garrantzitsuena. Zerbitzu honen helburua, herritarrei eskaintzen zaien arreta hobetzea da, udaletxeko edozein gestio egiterako orduan erretasunak eskainiz. Bestalde, Mintxetako futbol zelaiaren berritzeak 700.000 euroko inbertsioa suposatuko du, eta aire libreko igerilekuetako aldagelek 450.000 euroko kostua izango dute. Inbertsio hauei aurre egiteko, Udalak epe luzerako kreditu bat eskatuko du.

Jon Zubiaurre Ogasuneko zinegotziak azaldu zuenez, inbertsioen atalean iazko aurrekontuetatik datozen 1.047.074 euro gehiago daude. Diru hau, eskailera mekanikoak egin, Pilarreko pasarela bukatu, eta gazte lokala jartzeko Mupen enpresa erosteko erabiliko da, besteak beste.



Elgoibarko udaletxea obretan dagoenez, Kultur Etxeko hitzaldi gelan ospatu zen Udal Plenoa joan zen otsailaren 19an.

Foru Aldunditik 4.560.900 euro

Debabarrenako herriek 24 milioi euro jasoko dituzte Gipuzkoako Foru Aldunditik. Diru banaketa herri bakoitzaren ezaugarrien arabera egingo da, eta Elgoibarrek 4.560.900 euro jasoko ditu.

aurrekontuak aztertzeke denborarik eman ez izana eragotzi zion Gobernu taldeari. Ovidio Campellok herriaren benetako beharrak zeintzuk diren zehazteko irizpide falta eragotzi zien EAJ eta EARI.

PP eta PSE-EEren abstentzioa

PPk ez zuen botorik eman, baina Iñigo Arkauz zinegotziak aurrekontu egokia zela aitortu zuen. Bere alderdiaren abstentzioa, Udalbiltzari egokitutako 3.000 euroren ondorioa zela azaldu zuen.

PSE-EE alderdiak, bestalde,

IU ez zen Plenora izan

IU alderdiko zinegotzia ez zen plenora agertu. Horrelakoak ebitatzeko asmoz, EAJ, EA, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin, Plenora agertzen ez diren zinegotziei isunak handitzea onartu zen. Zinegotzi bakoitza hilerio izaten diren bileren %75era agertu beharko da gutxienez, bere alderdiak zinegotzi horri dagokion diru kopurua

Aurrekontuak 2004

SARRERAK	Zenbatekoa	IRTEERAK	Zenbatekoa
1. Zerga zuzenak	1.928.588,99	1. Langileei ordainketak	2.670.257,17
2. Zeharkako zergak	600.000	2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	3.430.324,39
3. Tasa eta beste sarrera batzuk	2.213.067,38	3. Finantza gastuak	176.000
4. Transferentzia arruntak	5.049.787,67	4. Transferentzia arruntak	2.021.600,06
5. Ondarezko sarrerak	41.055	5. Inbertsio errealak	3.838.880,18
6. Ondasunen salmenta	94.835,96	6. Kapitalaren transferentzia	352.344,49
7. Kapital transferentziak	371.000	7. Finantza aktiboak	20.000
8. Finantza aktiboak	20.000	9. Finantza pasiboak	606.000
9. Finantza pasiboak	13.115.406,29		
GUZTIRA	13.115.406,29	GUZTIRA	13.115.406,29

141 etxebizitza berri egingo dituzte Madalan

Hasi dira dagoeneko Maala 2 zonaldeko etxeak eraikitzen, eta proiektu honekin Madala ingurunea erabat aldatuko da. Urte gutxiren buruan Pedro Muguruza Etorbidea oinezko kalea izango da, eta errepeidea Arriola tailerra zegoen ingurunetik Toletxe aldera desbideratuko dute.

Martxoan botako dituzte Arriola tailerra, Herminios taberna zegoen eraikina, Etxezuri eta Aranatarren atxea. Aurrerago Jarbe eta Fundiciones Alba enpresak botako dituzte, eta Gaztetxea Udalak erosi berri duen Mupen enpresaren lokalean kokatuko da.

11 bloketan banatuta, 141 etxebizitza berri eraikiko dira. Urtago Promozioak enpresak 6 bloke egingo ditu lehenengo, (74



etxebizitza), eta gainontzekoak merkatuaren eskariaren arabera eraikiko dituzte. Ermuaranbide kaleko hiru blokeak 2003ko abendurako amaituko dituzte, eta trenbidearekin paraleloan eraikiko dituzten beste hiru blokeak 2006ko apirilera

Danobat Taldeak goi mailako teknologia landuko duen planta irekiko du Itziarko industrigunean

Danobat Taldeak Goimek kooperatiba sortu du, teknikoki zailak eta garestiak diren pieza bereziak egiteko. Tamaina handiko piezak landuko dituzte, batez ere, orain arte merkatuan oso eskaintza txikia baitago alor honetan. Horretarako, planta berri bat irekiko du Itziarko industrigunean, eta datorren irailera martxan egotea espero dute.

Planta berri honek 12,3 milioi euroko aurrekontua izango du. Hasiera batean, prestatutako 65 langilerekin hasiko dira lanean, eta 2005. urterako 6,5 milioi euroko fakturazioa aurreikusten dute.

Proiektu honekin, Danobatek bere



lidergoa mantendu nahi du. Gaur egun, Danobat Taldeak (Danobat, D+S Sistemas, Goiti, Lealde, Soraluze eta Ideko) 900 langile ditu, eta Espainiako makina

IMHk Kubako enpresa bateko makinak jarri ditu martxan



Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuak (IMH), Kubako enpresa baten eskaintza onartu du, eta bertako zenbait makina jarri ditu martxan. Honekin batera, Valentin Valdes teknikari kubatarrek, bere enpresak AFMko fabrikatzaileei erositako makinei buruzko kontrola eta erabilpeneko ikastaroa burutu du IMHn. Kubatar tekniko hau prestatu aurretik, IMHko irakasle bat Kubara joan zen urtarrilean makina berriak martxan jartzera. Zerbitzu hau, IMHk enpresa bati makinak saldu ostean asistentzia tekniko eskaintzeko daukan ahalmenaren adibidea da.

Elgoibarko udaletxean obrak egiten ari dira

Elgoibarko udaletxeko eskailera, Pleno Aretoa eta Bake Epaitegia obretan daude. Eraikina zaharra denez, uste baino zailoak izaten ari dira berrikuntza lanak. Egurra berritu eta hormak margotuko dituzte, baina horretarako hormak barne-barnetik pikatu behar dira, hauts eta hondakin ugari sortu dituelarik. Hasiera batean eskailera nagusia eta Pleno Aretoa bakarrik berritzeko asmoa zeukaten, baina udalak Epaitegiko bulegoak berritzeko dirulaguntza bat jaso duenez, obra guztia batera egitea erabaki du.

Debegesak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko heziketa jarriko martxan

Debegesak Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan egiten duen eskaintza zabaldu egingo du. Laneko Arriskuen Prebentzioaren Arautegi Arloaren Erreforma Lege berriak ezartzen dituen aldaketan artean, prebentzioa, enpresen lehen betebeharrak bezala, eta prebentziorako giza baliabideen integrazioaren beharra azaltzen da. Gai honek enpresa askorengan izango du eragina.

Aldaketa hauek direla-eta, Debegesak, datorren martxotik aurrera, Laneko Arriskuen Prebentziorako erdi mailako kurtsoaren azken deialdia jarriko du martxan.

Bestalde, eta betiko egutegia jarraituz, Laneko Arriskuen Prebentziorako goi mailako teknikari kurtsoaren hiru espezialitateak jarriko ditu abian, hau da, segurtasuna, garbikuntza, ergonomia eta psiko-soziologia.

Informazio gehiago eskuratu nahi dutenek, 943 729280 (Sonia)

Badirudi inauterietako giroak behera egin duela aurten Elgoibarren GUSTATZEN AL ZAIKIZU ELGOIBARKO INAUTERIAK?



CRISTINA CONDE
14 urte, ikaslea

Bai. Larunbatean eta asteartean ateratzen naiz, baina nahiago dut larunbateko giroa. Jende asko ibili zen, denak mozorrotuta. Giroa ez da gutxitu.

ALEXANDER RUIZ
12 urte, ikaslea

Bai, oso ondo daude. Jende asko mozorrotzen da, eta denok Plazan biltzen gara. Suzko zezena, pailazoak eta larunbateko karaokea asko gustatzen zaizkit.



IANIRE ROVIRA
11 urte, ikaslea

Bai, ni bi egunetan mozorrotzen naiz, baina larunbata gehiago gustatzen zait. Arratsaldean eta gauez ateratzen gara kalera, eta giro oso ona egoten da.

JOSE ANTONIO PASCUAL
43 urte, pintorea

Bai, baina aurten oso jende gutxi ibili da. Haurtzaindegikoekin mozorrotzen naiz beti, baina urtetik urtera giroa jaisten doa.



NEREA DOMINGUEZ
22 urte, irakaslea

Bai, oso ondo pasatzen dut, mozorrotzea asko gustatzen zaidalako, baina ekitaldi gehiago egon beharko lirateke. Elgoibarko inauteriak asko hobetu daitezke.

Denok animatu beharko ginateke.

ENEKO ITURBE
13 urte, ikaslea

Bai, giro oso ona egoten da. Larunbata gehixo gustatzen jata. Mozorro lehiaketia oso politxa da, aurtenguan hirugarren postua lortu dogu. Oso ondo pasatzen dogu.






MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ≡ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ≡ ETA KONPONKETA
- ≡ MULTIKOPISTAK
- ≡ FOTOKOPIADORAK
- ≡ PLANOEN BIRREGILEAK
- ≡ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ≡ MARRAZKETA MATERIALA
- ≡ INFORMATIKA
- ≡ FAX

Malape taberna

Orain astegunetan



San Frantzisko, 60

AUTOMEDIKAZIO ARDURATSUA: GAIXOA, BERE OSASUNA ZAITZEAREN ARDURADUN

Nor ez da joan inoiz botikara, errezetarik gabe, familiarteko edo lagunen batek gomendatutako botikaren bat erostera? Edo nork ez du noizbait erosi urteroko min arin horren (eztarriko min, belarriko min...) aurka sendagileak aurreko batean emaniko botika hura? Lehen kasuan, bere buruari botikak gomendatzea aukeratzeko duen pertsona baten aurrean gaude. Bigarrenean, aldi behin izaten duen gaitz baten sintomak antzemanda, eta horien aurka nola egin badakienez, automedikazio arduratsuen aldeko aukera egiten duen erabiltzailea dugu.

ZENBAIT BOTIKAREKIN, ARRETA BEREZIA

1. Antibiotikoak. Espainiako biztanleen %88ak urtean behin gutxienez antibiotikoak hartzen ditu eta botiken %25-30 medikuaren kontrolik gabe saltzen da. Kasurik gehienetan, ez dira egokiak eta ez dira behar den dosian eta behar adina denboran hartzen. Ondorioz, bestelako emaitza desatseginez gain, bakterioen aurkako erresistentzia tasarik handieneko herrialdeetako bat da Espainiako estatua. Germenak antibiotikoen aurrean erresistente bihurtzen dira eta hori, espezialisten iritziz, osasun publikorako arazo larri bihurtzen da epe laburrean.

2. Analgesikoak. Datuek erakusten dutenez, analgesiko kopuru izugarria kontsumitzen da adin talde guztietan. Azken sei urteotan, %25ean egin du gora analgesikoen salmentak. Aspirina larregi hartzen bada, urdaileko hemorragiak, erreakzio alergikoak eta bestelako gaixotasunak sor daitezke.

3. Antiinflamatorio ez-esteroideoak. Gero eta gehiago kontsumitzen dira, analgesikoekin batera edo bakarka eta adin handieneko pertsoneri eragiten die batez ere. Gastritis-a eta urdaileko hemorragiak izaten dira arrisku ohikoak.

MOEk (Munduko Osasun Erakundea) dioen moduan, automedikazio arduratsua onuragarria da, pertsonalki zein sozialki:

- n Osasun arazoak arindu edo konpontzea medikuen lanaz aparte eta era osagarrian egin daiteke.
- n Pertsonak beren osasuna zaintzeko duten autonomia eta arduraren areagotu egiten da.
- n Itxaronaldiak, joan-etorriak edota denbora galtzea gutxitu egiten dira.
- n Osasun sistema arindu egiten da, era autonomoan trata daitezkeen gaixotasunak gainezka egon gabe.
- n Automedikazioa onartu beharreko errealitatea da. Osasun arloko informazio eta heziketa lagungarri izan daiteke botikak era arduratsu eta positiboan har daitezeko. Automedikazio okerra arriskutsua da.

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,
deitu BARREneko 943 74 41 12ra

Osasun txokuak

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

16 lagunek hartu zuten parte Euskal Jolasen ikastaroan



Joan zen otsailaren 7an bukatu zen Elgoibarko Izarrak antolatutako euskal jolasen ikastaroa. Urtxintxa Aisialdi Taldekoak izan ziren irakasleak, eta Mutrikuko, Mendaroko eta Elgoibarko 16 lagunek hartu zuten parte ikastaroan. Guztira, 16 orduko iraupena izan zuen ikastaroak, eta

euskal jolas desberdinak ikasteko aukera izan zuten: abestiak, esku jolasak eta baita gure gurasoen garaiko hainbat jolas ere: txapa jolasak, intxaurrekin jolasteko jolasak... Bestalde, haurrak euskaraz hitz egitera motibatzekeo begiraleok izan beharreko jarrerak landu zituzten, eta baita saioak

IMH eguna ospatu zuten otsailaren 20an

Joan den otsailaren 20an, ostiralean, Heziketa Zikloetako, Ingeniaritzako eta Gestio Eskolako ikasle, irakasle eta langileen artean IMH eguna ospatu zuten. Goizean goiz hasita, kirol eta aisialdi ekintza desberdinetan hartu zuten parte, eta giro bikaina izan zen.

Goizean kirol desberdinetako finalak jokatu ziren. Nor baino nor, aritu ziren denak, euren abilezia erakutsiz. Beste batzuk Karakatera igoera egin zuten elur artean. Lehiaketa bukatzeko, paella lehiaketa izan zen eguerdian. Lehen ikasturteko D Ereduko Mantenimenduko Goi mailako Heziketa Zikloetako ikasleak izan ziren irabazleak.

Eguna bukatzeko, Añota Sagardotegiari eta Gelatxo baserriak utzitako kupelei esker, sagardotegi giroko bazkaria egin zuten, bertsolari eta guzti.



Pilar Ikastetxeok Kontsumo Tailer Mugikorretan hartu dute parte



Pilar Ikastetxeok irakasle, ikasle eta gurasoek Kontsumo Tailer Mugikorrek izeneko proiektuan parte hartu dute. Gurasoek "Ikas dezagun seme-alabak ondo elikatzen" izeneko tailer praktikoa batean hartu dute parte. Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleek, beste hainbat tailer ezberdinetan aritu dira, eta asko ikasi dute. Azkenik, irakasleek kontsumorako material didaktiko ezberdinak ezagutu dituzte, aurrerantzean praktikan jartzeko asmoz.

ASTE SANTUKO ESKAINTZA



atxutxiamaika
AISIALDI TALDEA

ATXUTXITXIKI

Elgoibar
Apirilak 13, 14, 15, 16
HH (3-5urte)
10:00-13:00
25 euro

TXURI URDINERA IRTEERA

Apirilak 17, zapatua
LH 1-2-3-4
10 euro

UDALEKU ITXIA

Aubixa
Apirilaren 13tik 17ra
LH 4-5-6
65 euro



AISIALDI TALDEA

UDALEKU ITXIAK

Hondarribia
Apirilaren 13tik 17ra
DBH 1-2
65 euro

Askizu (Getaria)
Apirilaren 13tik 17ra
DBH 3-4
65 euro

Izen-emate epea martxoan irekiko

Informazioa gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Nerea Oñederra) | E-posta: nerea@elgoibarkoizarra.com

Kil*i* BARREN

Eguraldi txarrak ez zituen ihauteriak hondatu mendaron

Guztira 62 lan aurkeztu ziren hiru mailatan

Kolore gehien dituzten jaiak, Ihauteriak hain zuzen, pasa den ostiral eta larunbatean iritsi ziren Mendarora.

Zoramena eta festa giroa ostiralean nabaritzen hasi ziren San Jose Ikastolako ikasleak mago jantzita Goñati pilotalekura hurbildu zirenean, festa koloretsua izan zuten bertan. Larunbatean, hainbat ekitaldi prestatu ziren Arno Guraso Elkarte eta Udalaren laguntzarekin: arratsaldeko 17:00etan Pilotalekuan Antzerki musika egon zen, Ane Monnoa Oskola eta kamamarroi izenekoa, ondoren arratsaldeko 18:30etan txokolatada eta bukatzeko diskoteka.

Bestalde, arratsaldeko 5etatik aurrera In Leikek antolatuta Sasikopotzu izan zen Garagarza elizpean, hasiera batean



Santakutzen izatea pentsatu bazen ere. Merienda tradizionala izan zuten bertara hurbildu zirenak, moztorerok okurranteenarentzat saria sorpresa egon zelarik.

Eguraldi txarrak ez zuen festa hondatu, kolore eta festa zurrumbiloa egon baitzen Mendaron. Datorren urterarte gorde beharko dituzte mendarotarrek moztorroak, ea hurrengoan eguraldiak

Mendaroko ospitala txikia geratzen ari da

12urte daramatza zerbitzuan Mendaroko Ospitalak, Deba Beheko 75.000 biztanleren osasuna bermatzen. Hala ere, osasun zerbitzu hauek Ondarroa, Bergara, Azkoitia, Azpeitia-ko biztanleek ere erabiltzen dituzte. Ospitalaren betetzea bailarako gaixoak larrialdi zerbitzura joaten direnean gertatzen da, zentroak dituen 102 oheak beteta daudelako. Horregatik, Osakidetza beste ospital batzuetara bidaltzen dituzte gaixoak, Arrasate, Zumarraga, Donostia edo Galdakaora.

Gaur egun 4 ebakuntza-gela ditu ospitalak eta bi erditze-gela, baita suspertze-atala ere. Hala ere, momentu batzuetan, gaixoen etorrera handia da



goenean oherik gabe geratzen da zentroa eta arazo hau gero eta kezagarriagoa bihurtzen ari da urtetik urtera.

4 urteren buruan %22 gaixo gehiago ospitaleratzen da, 2003 urtean 7000 ospitaleratu zirelarik.

Zaharren egoitzan asanblada ospatu zen

Asteazkenean, hilak 25, arratsaldeko 4etan, Lagun Betikoak egoitzan asanblada nagusia ospatu zen. Gai askoren artean presidentearen jarraipena tratatu zuten, gaur egun Maria Asun Ulazia da egoitza honetako presidente. Egoitzak 300 sozio inguru ditu eta urtean zehar mota askotako ekitaldiak antolatzen dituzte.

Balio Anitzeko Eguneko zentroa irekiko da Mendaron datorren urtean

Diputazioaren gizarte politikak 5 Balio Anitzeko Eguneko zentro jarriko ditu martxan udalerririk gabekoetan. Aurten, Errezil, Zegama eta Elgetan irekiko dira eta datorren urteari begira Mendaron eta Bidegoian irekitzeko asmoa dago. Zentro hauek eguneko zentro eta tutoretzako etxebizitza gisa erabiliko dira. Gizarte politika departamenduko kudeaketa eta programazio zuzendaria den Ramon Jauregiren esanetan, ekintza desberdinak burutuko dira 2000 biztanle baino gutxiago dituzten Gipuzkoako 44 udalerrietan gizarte zerbitzuak hobetu daitezten. Berri onak beraz mendarotarrentzat.

Santa Ageda Koroak 2513 euro bildu zituen

Otsailak 7an, larunbata, Santa Ageda koroa irten zen Mendaron, koplari trikitilari eta hainbat emakumekin batera. 2513 euro bildu zituzten egun honetan, diru hau Musika Eskolarentzat izango delarik.



Kilibarren

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

2004KO AURREKONTUEN



AURREKUZPEN

GASTU GARRANTZITSUENAK

ONGIZATEA

I Balio Anitzeko Nekazal Zentroa. 60.000 euro

2005 abuzturako egoitza hori inaguratuta egon behar da, horretarako derrigorrezkoa da autengo urtean gutxienez proiektu gastuak sartzera eta ahal izango balitz lanen hasierak sorrarazitako gastu batzuk ere.

I AES, Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntza. Arazoak dituzten familientzat laguntzak dira hauek. Orain arte Mendaroko udalak eman duen dirulaguntza Eusko Jaurlaritzak eman duena izan da, hala ere, nahikoa ez dela ikusi dute eta 10.000 euroko poltsa municipal jarri da laguntza honetarako. Denera 18.000 euro.

I Jubilatuen egoitza. 24.000 euro anplazioan laguntzeko.

NATURA

I Red Natura 2000 Arno 3.000 euro. Arnoko mendia Red Natura 2000sarean sartuta dago, Europatik datorren kalifikazioa da hau. Horregatik ikerketa bat egiteko dirua jarri da, bertako aberastasuna mantentzeko

KULTURA

I Elkarteei dirulaguntzak. 23.000 euro. Igoera bat egon da kultura dinamikoa sortzen jarrai dezaten.

I Euskaltegia. 5.000 euro.

In leikek planteatu dio udalari hemendik aurrera udalak eramatea euskaltegia

URBANISMOA

I Obra txikiak. 24.000 euro, aurreko urtekoaren konparatuta bikoiztu egin da.

I Santa Kuzkua etxearen erosketa, kreditu modifikazio baten bidez, hots, 2003ko diru-sarrera 2004an sartuko da. Erosketa hau inbertsio garrantzitsua izango da.

I Sasiak garbitzeko makina. baserri eta mendietako bideak garbitzeko, traktorearen inbertsioa eta kuotak, 15.900 euro, datorren urtean kuota bakarrik mantenduko delarik.

I Bideak, 33.000 euro .

I Bizkotzeria etxearen berrikuntza (%60eko subentzioa dauka) 39.000 euro.

ARAU SUBSIDIARIOAK: 60.000 euro.

Asteartean, arratsaldeko 19:00etan, MTIk, Esti Gonzalez buru zela, osteguneko ohizko Udalbatzan onatu ziren 2004ko aurrekontuaren partidari garrantzitsuenen informatu zituen entzuleak, hau da, aurtengo aurrekontuan esanguratsua diren puntuen berri eman zuten. 2003. urtean izandako sarrera eta gastu errealekin konparatuta igoera bat ikusten da.

Zergetan %2.5eko igoera bat aurreikusi dute, KPI (Kontsumorako Prezioen Indizea) aplikatuta, beti ere 2003. urtean izandako sarrera errealetan oinarrituta.

Diputazioko dirulaguntza 2003. urtean 590.000 eurokoa izan zen, 2004. urtean ordea 624.700 eurokoa, igoera hau populazioaren igoeratik geratu da batez ere. Subentzioei dagokionez, sarrera garrantzitsuen Izartu programari dagokiona da, 623.300 euroko dirulaguntza hain zuzen ere, kapila eta gaztelekuko obrak finantzatzeko. Guztira, 2.500.800 euroko sarrerak.

Aipatu behar da 2003. urtean aurreikusita zegoen baino diru gutxiago gastatu zela, burutzeko zeuden lan eta obra batzuk egin gabe geratu zirelako edo 2004 urtera pasa direlako.

